

ELURRARI DAGOKION IRAGARPEN BEREZIA - # 25/2024 2024/02/22 an 10:30etan SORTUA (ordu lokala)

""Probabilitate handiena"duen egoerari loturiko iragarpen berezia, neguko bidezaintza zerbitzuek eskatuta

Kontuz ibili, beraz, orduekin, baita pilatutako prezipitazioarekin, gutxi gorabeherakoak baitira

PREZIPITAZIOAREN INTENTSITATEA / ELUR-KOTA / BANAKETA GEOGRAFIKOA

Osteguna, hilak 22:

Elur-kota jaisten joango da eta egunaren azken orduetan 1000 m-ren inguruan kokatuko da. Egunaren bigarren partean euri txiki-ertaina egingo du, azken orduetan atertuz joango da. Gauean mendi inguruetan izotz txikia egingo du. Aurreikusitako lodierak gainontzeko orduetarako: 0 cm 1000 m-ra, 0 cm 600 m-ra, 0 cm 200 m-ra.


Ostirala, hilak 23:

Elur-kota 800 m artean kokatuko da. Goizaldean eta goizean Kantauri isurialdean noizean behin zaparrada txikiak botako ditu, bereziki kostaldean. Eguerditik aurrera zaparrada txikiak botako ditu, zenbait lekutan ertainak, sariagoak eta ugariagoak Kantauri isurialdean eta azken orduetan. Trumoi-ekaitzak izan daitezke eta txingorra bota dezake. Barnealdeko zenbait tokitan izotz txikia egingo du; mendi inguruetan izotz ertaina egin dezake. Aurreikusitako lodierak: 0-5 cm 1000 m-ra, 0 cm 600 m-ra, 0 cm 200 m-ra.

Larunbata, hilak 24:


Elur-kota 700 m inguruan egongo da; arratsalde-gau partean igoz joango da eta 1000 m inguruan egongo da. Kantauri isurialdean zaparrada txiki-ertainak botako ditu, bereziki kostaldean. Gainerako lekuetan han-hemenka zaparrada txikiak botako ditu, noizbehinka ertainak. Egunaren lehengo parteantrumoi-ekaitzak izan daitezke eta txingorra bota dezake. Barnealdean izotz txikia egingo du, mendi inguruetan ertaina. Aurreikusitako lodierak: 2-15 cm 1000 m-ra, 0-1 cm 600 m-ra, 0 cm 200 m-ra.

ELUR-KOTA / ISOTERMA 0°C



Ordua	OSTEGUNA 2024/02/22				OSTIRALA 2024/02/23				LARUNBATA 2024/02/24				2024/02/25
	06:00	12:00	18:00	00:00	06:00	12:00	18:00	00:00	06:00	12:00	18:00	00:00	06:00
Prob. hand. kota (m)			1200	1000	800	800	800	800	700-800	800	1000-1100	1000-1200	1400
Isoterma 0°C (m)	2800	2400	1400	1200	1000	1000	1000	1000	900	1000	1200	1500	1800

PILATUTAKO PREZIPITAZIOA 6 ORDURO



Ordua	OSTEGUNA 2024/02/22				OSTIRALA 2024/02/23				LARUNBATA 2024/02/24				2024/02/25
	00-06	06-12	12-18	18-24	00-06	06-12	12-18	18-24	00-06	06-12	12-18	18-24	00-06
max. est.(mm)	0	0	10	8	8	8	10	8	8	10	8	5	8
prob. hand.(mm)	0	0	5	3	3	3	5	3	3	5	3	1	3
min. est.(mm)	0	0	3	0	0	0	1	0	0	1	0	0	1

Oharra: Iragarritako prezipitazioa, 6 orduko tartean pilatzea espero den prezipitazioa da. Adibidez, 00-06etako prezipitazioak 0:00tik 6:00ra pilatutako prezipitazioa adierazten du.